

BAIMENAK 03 - MDP - Salgaien garraio publikorako baimen berria (BGM >3.500kg)

Fitxa interneten bistaratu

INFORMAZIO OROKORRA

Helburua

Baimen honek ahalbidetzen du besteren kontura, diru-ordain bat jasoz, Estatu barruan ibilgailu astunekin nahiz arinekin garraiatze-lanak egitea. MDP motako baimenekin ibilgailu astunekin garraio egin daiteke (3.500 kilo baino gehiagoko BGM).

Nork tramitatzen du

- MUGIKORTASUNeko ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO DPTUA.
- Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusia
- Mugikortasun eta Garraio Zerbitzua

Harremana

Helbidea:

Julio Caro Baroja plaza, beheko solairua - atzealdea, 20018 Donostia

Ordutegia:

8:30etik 13:30era astelehenetik ostiralera

Helbide elektronikoa:

garraioabaimenak@gipuzkoa.eus

Harremanetarako telefonoa:

943 112991

Nori zuzenduta

Enpresak eta autonomoak.

Baldintzak

- 1.- Pertsona fisikoa edo juridikoa izatea.
- 2.- Espainiako nazionalitatea edo Europar Batasuneko herrialderen batekoa izatea, edo atzerritartasun-araubideko baimena izatea garraiolari-jarduerarako.
- 3.- Gaitasun profesionalaren baldintza betetzea.
- 4.- Zerga betebeharrak beteta izatea.
- 5.- Lanaren eta gizarte-segurantzaren arloko betebeharrak betetzea.
- 6.- Gutxienez ibilgailu bat izatea jabetzan, finantza errentamenduan edo errentamendu arruntean, trakzio propioa duena eta Espainian matrikulatua dagoena.
- 7.- Gaitasun ekonomikoa: 9.000 € lehenengo ibilgailuagatik eta 5.000 € atxikitako ibilgailu gehigarri bakoitzeko.
- 8.- Garraio jarduera egingo den egoitza bat edukitzea.
- 9.- Baliabide hauek dituela frogatzea: bitarteko informatikoak, posta elektronikoa, eta sinadura elektronikoa, ziurtapen zerbitzuen emaille baimendu batek emana.
- 10.- Ordaindu gabeko zehapenik ez izatea.
- 11.- Aholkularitza edo gestoria baten bitartez jardunez gero: gestoriak 001k ordezkari erroldan alta emanda egon behar du.

HASIERA ETA ESKAERA

Aurkeztu beharreko formularioak eta ereduak

Aurkeztu beharreko agiriak:

[MDP baimen berria - aurkeztu beharreko agiriak](#)

Tasa ibilgailuko: 23,79€

Ereduak:

- 1.- Eskaera, behar bezala beteta. [GBE](#)
- 2.- Interesdunaren baimena, agiri jakin batzuk egiaztatzeko Administrazioa ofizios erregistro publiko zehatz batzuetara sartzea ahalbidetzen duena. [ERREGISTRO PUBLIKOAK](#)
- 3.- Baimenaren titularraren zinpeko aitortpena, ekipamendu informatikoa eta posta elektronikoa badituela adierazten duena. [EMAIL ZINPEKO AITORPENA](#)
- 4.- Gaitasun-agiridunaren/garraio kudeatzailearen zinpeko aitortpena, posta elektronikoa baduela adierazten duena. [GARRAIO KUDEATZAILEA - POSTA ELEKTRONIKOA](#)
- 5.- Baimenaren titularraren adierazpena zeinean enpresaren jarduera profesionalaren egoitza adierazten den. [JARDUERAREN EGOITZA AITORPENA](#)
- 6.- Gainera, jarduera etxebizitza partikular batean egiten bada, ikuskaritza etxebizitza horretan sartu ahal izateko baimena. [JARDUERAREN EGOITZA- IKUSKARITZA BAIMENA](#)

Eskaera moduak

» Internet

Internet bidezko eskaera

Eskaera eta dokumentazioa Gipuzkoako Foru Aldundiaren erregistro elektronikoaren bidez bidali behar da. <https://egoitza.gipuzkoa.eus/WAS/CORP/WATTramiteakWEB/inicio.do>

Tramitazio elektronikorako beharrezko identifikazioa

» Ziurtagiria eta B@KQ

EBAZPENA

Ebazteko gehienezko epea

Legezko epea: bost hilabete.

Administrazioaren isiltasuna

Ezestekoa

ARAUDIA

- Uztailaren 30eko 16/1987 Legea, Lurreko Garraioa Antolatzekoa, zeina aldatu egin baitzen uztailaren 4ko 9/2013 Legearen bidez. [Legea, lehorreko garraioak antolatzeari buruzkoa](#),
- Irailaren 28ko 1211/1990 Errege Dekretua, Lurreko Garraioa Antolatzeko Legearen Erregelamendua onesten duena, zeina aldatua izan baitzen otsailaren 15eko 70/2019 Errege Dekretuaren bitartez. [LGAE](#)